

Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran

Oihana Lujanbio Begiristain
EHUko ikaslea

Nafarroako herri euskaldun batean gaur egun erabiltzen den hizkera aztertu du ikerketa honek, lupa aldaketan paratuta. Goizueta aztertu dugu, nafarreraren eta erdialdeko euskararen arteko zubi-hizkera dena.

Trantsizio-hizkerak aztertzea interesgarria da hizkuntza-aldakortasuna ikertzeko. Gainera, gure kasuan, azken hamarkadetan euskara batua hedatzeak egoera soziolinguistikoko berriak sortu ditu eta Euskal Herrian arlo hori gutxi landu da. Euskara batuaren gizarteratze-prozesua ezagutu duten bi belaunaldiren hizkuntza-hautuak aztertu dugu: eskolatzea erdaraz egin dutenena eta eskolan euskara batua jaso dutenena. 19 parte-hartzaileak bi aldiz elkarriketatu dira, Goizuetako hiztun batek eta erdialdeko euskalkiaren hiztun batek. Adin-taldeak eta elkarriketatzaileak, biek eragin dute hizkuntza-hautuan: parte-hartzaileek herriko aldaera gehiago erabili dituzte Goizuetako elkarriketatzailearekin eta adinekoek herriko aldaera gehiago erabili dituzte gazteek baino. Oro har, bertako aldaeren erabilera altua izan da eta bertako hizkerari atxikimendu handia erakutsi zaió.

GAKO-HITZAK: Hizkuntza-aldakortasuna · Soziolinguistika · Gizarte-aldagaiak · Hizkuntza-aldagaiak.

Language variation in Goizueta Basque

This research is concerned with linguistic change in progress in Goizueta, a Basque-speaking Navarrese village. Goizueta is a transitional area between two major Basque dialects, High Navarrese and Central or Gipuzkoan.

In the investigation of language variation, transitional dialects are particularly interesting. In addition, in our case, the diffusion of Standard Basque in the last few decades has created new sociolinguistic complexities. This topic, however, has so far received little attention in the Basque Country. We report on linguistic choices by two generations of speakers, who received schooling before and after Standard Basque was introduced in the school system. Each of our 19 participants was interviewed twice, by a speaker of Goizueta Basque and by a speaker of the Gipuzkoan dialect. Both age group and the identity of the interviewer affected linguistic choices significantly: participants used more local variants when the interviewer was also from Goizueta and older speakers used more local variants than younger speakers. Overall, the use of local variants was very high, indicating considerable loyalty to the local dialect.

KEY WORDS: Language variation · Sociolinguistics · Social variables · Linguistic variables.

Jasotze-data: 2011-09-26. *Onartze-data:* 2012-01-16.

1. Sarrera¹

Hizkuntza-ekologiarentzat hizkuntzen aniztasuna aberastasuna da. Hizkuntza-aniztasuna onuragarria bada, hizkera-aniztasuna ere hala da; Koldo Zuazoren esanetan, bere osotasunean landu eta garatu behar da hizkuntza, bere hizkera guztiekin, sendo eta osasuntsu egongo bada (2005). Hizkera diogunean, egoera bakoitzean baliatzeko erregistro berezietan ari gara. Hau da, herri-hizkera, euskalkia, euskara batua, lagunarteko hizkera, hizkera jasoa, lanbideetako hizkerak, jolas-hizkerak, haur-hizkera edota gazte-hizkera.

Ikerketa honen bidez, Nafarroako herri euskaldun batean gaur egun erabiltzen den herri-hizkera aztertu dugu, Goizuetakoa. Eta lupa aldaketan paratu dugu; hizkera hori nola ari den aldatzen aztertu dugu. Goizueta zubia da izenez (< Goizubi-eta) eta hizkeraz. Bi euskalkiren arteko zubi-hizkera da herri horretan hitz egiten dena, nafarreraren eta erdialdeko euskararen artekoa. Hizkuntza-aldakortasuna gutxi landutako arloa da Euskal Herrian, eta oraingoa oso une aproposa iruditzen zaigu horretarako. Izan ere, euskara batua 1968an sortu zen eta harrezkero gizareratze-prozesua bizi du. Prozesu horren gorabeherak ezagutu dituzten belaunaldiak eskura ditugu eta horietako batzuk izan dira ikerketa honen subjektuak; gazteak eta adinekoak.

Aldakortasuna aztertzen duen soziolinguistikaren metodologia baliatu dugu, kasu honetan, Labovék eta Tagliamontek erabili duten metodologia bariasionista. Horren bidez, Goizuetan aldakortasunean diren hizkuntza-ezaugarri batzuk aukuratu dira eta gizarte-aldagaien arabera aztertu. Estatistika izan dugu laguntzaile, zenbakien bidez dena azaltzea posible dela uste ez badugu ere. Zenbakiek joerak erakusteko balio dute eta horiek bilatzeko erabili dugu estatistika. Moreno Fernándezen hitz hauek ongi islatzen dute egiten aritu garena (1994: 99):

La estadística permite llegar a conclusiones sobre la variación lingüística en una comunidad, partiendo del análisis de los datos recogidos en unos pocos hablantes que se consideran representativos de esa comunidad.

Eskerrak eman nahi dizkiot Larraitz Garmendiari, grabaketak musu-truk egiteagatik eta proiektuaren hasieratik emandako laguntza eta animoengatik. Baita ikerketaren hainbat bidegurutzetan lagundu didaten irakasleei ere: Jose Ignacio Hualde, Koldo Zuazo eta Gotzon Aurrekoetxea. Ikerketa hau egitea ez zen posible izanen gure galderei erantzuteko prest egon diren goizuetarrak gabe eta eskerrak haiei ere. Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi ikerketan buru-belarri murgiltzea erraztu didaten Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Ikaskuntzaren Angel Apraiz beka².

2. Hipotesiak

Lanaren helburu nagusia Goizuetako hizkera nola ari den aldatzen ikustea da. Hitzuna dugu aldaketa edo mantentzearen egilea, eta beregan jarri ditugu begiak ikerketa hau egitean. Nola aldatzen du hitzunak hizkera? Beste hitzunen hizkerak edo hizkuntzek zer eragin dute? Eta solaskidea bertakoa edo kanpokoa izateak?

1. Eusko Ikaskuntzaren Angel Apraiz bekaren laguntzarekin egin da ikerketa hau.

2. Txosten hau jatorrizkoaren laburpena da. 80 orriko txosten osoa eskuratu nahi izanez gero, egileari eskatzen ahal zaio: oihamaio@hotmail.com

Eta herriarekiko atxikimenduak? Hiztunaren sexuaren arabera ba al da alderik? Hori guztia nola islatzen da adinean zehar?

Goizuetako hizkera nafarreraren eta erdialdeko euskararen arteko mugan dago, eta dialektologiak aztertu ohi duen gai hau metodologia soziolinguistikoa-rekin ikertzeak argibideak emanen zituela izan da hipotesia. Pistak hizkuntza-trantsizioa edo hizkuntza-aldaketa nola gertatzen ari den jakiteko. Izan ere, Goizuetako hizkera nafarreratik erdialdeko euskararantz doala dirudi, baina nola ari da gertatzen aldaketa hori? Zergatik eta zertarako? Zein gizarte-aldagai dira garrantzitsuen? Zeinek azaltzen du hizkuntza-aldaketa hobeki? Galdera horiei erantzun nahian abiatu dugu ikerketa.

Ikerketaren abiapuntuan, aurre-hipotesia hau izan da: aldaketak egon dira goizuetarren bizimoduan eta aldaketa horiek hizkeran eragina izan dute. Zehazki, batetik, Goizuetako biztanleen harremanak aldatu egin dira eta, bestetik, euskara batua sortu da eta hezkuntzan eta ikus-entzunezkoetan gehien erabiltzen dena da. Horren ondorioz, erdialdeko euskararen (eta batuaren) eragina handiagoak dira gaur den egunean, orain dela 50-100 urte baino. Aldakortasunaz hitz egiten dugunean, noranzko horretako aldakortasunaz ari gara, hau da, erdialdeko euskararanzko eta baturanzko aldakortasunaz.

Aldaketa horrek bertako hizkeran duen eragina aztertzeko ikerketa da honakoa. Hiztunak dira hizkeraren sortzaile, eta aldaketa hauek ez diete berdin eragiten guztiei; hiztun berritzaileagoek berrikuntza gehiago erabiliko dituzte gordetzai-leagoek baino.

Hori esanda, honakoa da hipotesi orokorra: erdialdeko eta euskara batuko ezaugarri gehiago erabiliko dituzte lekuko batzuek, norberaren gizarte-aldagaien arabera. Horrela, Goizuetan ohikoak izan diren hizkuntza-ezaugarrien erabilera gizarte-aldagai jakin batzuek baldintzatua ageriko da. Emaizten analisisa egiterakoan, aldaketa-joera horrek nori eragiten dion gehien eta nori gutxien aztertuko dugu, alegia, Goizuetako hizkuntza-ezaugarriak nork mantentzen dituen gehien eta nork gutxien. Ondorengo taulan zehaztu dugu, gure ustetan, gizarte-aldagaiek sortuko duten eragina zein den:

GIZARTE-ALDAGAIAK	HIPOTESIA
1. Sexua emakumea gizona	Emakumeak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituzte gizonak baino.
2. Adina 20-30 urte 60 urtetik gorakoak	Gazteak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituzte adinekoak baino.
3. Ikasketa-maila altua ertaina baxua	Ikasketa-maila altua duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituzte maila apalagoa duenak baino. Zenbat eta maila altuagoa, orduan eta Goizuetako forma gutxiago.
4. Solaskidea kanpoko (erdialdeko euskaraduna) Goizuetakoa	Kanpoko solaskidearekin Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dira Goizuetakoarekin baino.
5. Herrian/kanpoan bizitzeko nahia kanpoan bizitzea nahiago kanpoan bizitzea berdintsu zaio Goizuetan bizi nahi	Kanpoan bizitzea nahiago duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituzte Goizuetan bizi nahi duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.

1. taula. Ikerketaren hipotesiak, bost gizarte-aldagairen arabera.

Eta zergatik hipotesi horiek? Banaka, hipotesi bakoitza eraikitzeko izan ditugun arrazoiak azalduko ditugu.

Aurreneko gizarte-aldagaien, emakumeak gizonak baino Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko dituela uste dugu, Mendebaldeko literatura soziolinguistikoa emakumea izan ohi delako berritzaileagoa. Laboven azken ikerketetan, adibidez, emakumeak ageri dira berrikuntza linguistikoen lidertzan, estigmatizatutako hizkuntza-aldagaiak ez diren kasuetan (2001). Ondorioetan xeheago aztertuko dugu Labovek behatutako joerak Goizuetan ere antzematen diren.

Bigarren hipotesiari dagokionez, adinarenari, gazteek Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiltzea espero dugu adinekoek baino, gazteek euskara batuarekin eta erdialdeko euskararekin harreman handiagoa dutelako; dela eskolaren bidez, dela teknologia berrien bidez, dela herritik kanpora gehiago ateratzen direlako.

Ondoren, ikasketa-mailaren hipotesia paratu dugu: ikasketa-maila altua dutenek Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiltzea espero dugu maila apalagoa dutenek baino. Izan ere, ikasketa-maila altuagoa dutenek euskara batuarekin harreman gehiago dituzte gure hipotesiaren arabera. Hipotesi hau aurreko gizarte-aldagaienarekin lotua dago, adinarekin; ikasketa-maila altua dutenak, gehiengotan, gazteak dira. Ikasketa-maila altua dutenak adinekoak diren kasuetan (kasu bakar batean, gure laginean), gaztelaniaz ikasi dute, eta beraz, ez dute euskara batuaren eragin gehiago izanzen ikasketen ondorioz.

Laugarren gizarte-aldagaia solaskidea nongoa den dugu. Hipotesia zera da: kanpoko solaskidearekin Goizuetakoarekin baino Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko direla. Hipotesi honen oinarrian Giles-en «Egokitzapenaren teoria» dago, eta hauxe dio: «hiztunak beren hizketa-estiloak elkarri doitzeko edota berdintzeko motibaturik egon daitezkeela» (Camino 2005: 159). Kasu honetan, kanpoko solaskidea erdialdeko euskaraduna eta ezezaguna izanik, espero izatekoa da Goizuetako hiztunak kanpokoaren hizkerara egokituko duela berea, nahi gabe bada ere. Dena den, Caminoren esanetan, «konbergentziak bere kostuak ditu, egokitzeko egiten den eginahala eta norberaren integritatearen eta nortasunaren galera-neurri bat, esaterako». Emaitzetan ikusiko dugu zer gertatzen den.

Bosgarren aldagaian, herrian/kanpoan bizitzeko nahian, proba egin nahi izan dugu herrian bizi nahi dutenen eta kanpoan bizi nahi dutenen artean hizkuntza-erabilerak ezberdinak ote ziren. Gure hipotesia da goizuetar identitate «sendoa» (alegia, bertako hizkeraren ezaugarriak erabiltzea) Goizuetan bizi nahi izatearekin lotua egonen dela, eta zenbat eta ziurrago adierazi Goizuetan biziko dela, orduan eta Goizuetako hizkeraren ezaugarri gehiago erabiliko dituela. Gizarte-aldagai honen berri ematean (3.1.5), gehiago sakondu dugu puntu hau eta, azalpen gehiagorako, jo bertara. Gure ustez, lehenengo bost gizarte-aldagaiak dira fidagarrienak eta, ondorioz, garrantzitsuenak. Horregatik, laburpen honetan bost horien emaitzak aztertuko ditugu. Gainerakoen ondorio garrantzitsuenak bakarrik azalduko ditugu. Dena den, hona ikertutako beste hamar gizarte-aldagaien hipotesiak, gure interesak zein izan diren adierazteko:

6. Goizuetakoekin harreman-maila baxua ertaina altua	Goizuetakoekin harreman-maila baxua duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu harreman-maila altua duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.
7. Nafarroakoekin harreman-maila baxua ertaina altua	Nafarroakoekin harreman-maila baxua duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu harreman-maila altua duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.
8. Erdialdeko euskaradunekin harreman-maila altua ertaina baxua	Erdialdekoekin harreman-maila altua duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu harreman-maila baxua duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.
9. Erdararekin harreman-maila altua ertaina baxua	Erdararekin harreman-maila altua duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu harreman-maila baxua duenak baino.
10. Heziketa-hizkuntza euskaraz gaztelaniaz	Heziketa euskaraz izan duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu heziketa gaztelaniaz izan duenak baino.
11. Erdararen erabilera aitortua altua ertaina baxua	Erdararen erabilera altua duela dioenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu erabilera baxua duela dioenak baino.
12. Goizuetako hizkerarekiko iritzia txarra hala-holakoa ona	Goizuetako hizkerarekiko iritzi txarra duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu iritzi ona duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.
13. Nafarrerarekiko iritzia txarra hala-holakoa ona	Nafarrerarekiko iritzi txarra duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu iritzi ona duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.
14. Erdialdeko euskararekiko iritzia ona hala-holakoa txarra	Erdialdeko euskararekiko iritzi ona duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu iritzi txarra duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.
15. Batuarekiko iritzia ona hala-holakoa txarra	Euskara batuarekiko iritzi ona duenak Goizuetako hizkerako forma gutxiago erabiliko ditu iritzi txarra duenak baino. Emaizta progresioan joanen da.

2. taula. Ikerketaren hipotesiak, gainerako hamar gizarte-aldagaien arabera.

3. Metodologia

William Labov eta bere jarraitzaileek erabiltzen duten metodologia bariazio-nista baliatu dugun hemen, Sali Tagliamoneren lan berria (2006) hartuz bereziki kontuan. Erabili den metodologiaren puntu nagusiak azalduko dira jarraian: gizarte-aldagaiak, hizkuntza-aldagaiak, lagina, elkarrizketa-metodoa, galdetegiak, corpusa eta softwarea.

3.1. Gizarte-aldagaiak

Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duten ikerketa soziolinguistikoek bi mota-tako aldagaiak hartzen dituzte kontuan hizkuntza-aldaketa neurtzeko: aldatzen ari diren hizkuntza-aldagaiak eta aldaketa horretan eragiten duten gizarte-aldagaiak.

Hau da, hizkuntza fenomeno sozialtzat hartzen du soziolinguistikak eta, hizkuntza-aldagaiekin batera, gizarte-aldagaiak aztertzen ditu. Ikerketa batean eta bestean aztertzen diren aldagaiak diferenteak izan daitezke, ikerketaren helburuen arabera. Ondorengo puntuetan ikerketa honetako aldagai garrantzitsuenak azalduko dira.

3.1.1. *Sexua*

Gizarte-aldagai hau aztertzea ohikoa da azterketa soziolinguistikoetan eta ikerketa honetan ere hala egin da. Euskal Herrian gutxi aztertutako aldagaia da eta Goizuetan zer erakusten duen aztertu nahi izan dugu. Emakumeak gordetzai-leago dira, edo gizonezkoek dute paper hori? Emakumeak eta gizonak hartu dira kontuan, bestelako genero-bereizketarik egin gabe. Izan ere, laginketa egiteko erabili dugun iturriak, Goizuetako Udal Erroldak (2010), sexuaren datua biltzen du bakarrik.

3.1.2. *Adina*

Adinak beste gizarte-aldagaien eraginak islatzen ditu eta, horregatik, ez da batere aldagai sinplea. Arlo honetako azterketa soziolinguistiko guztietan hartzen da kontuan, baina adin-multzoak beti ez dira berberak. Ikerketa honetan bi multzo bereizi dira: 10-34 eta 60-88 urte bitartekoak. 10 urte baino gazteagoak ez dute beren ikasketa-maila finkatua eta, gainera, 20 urtetik gorakoak lehenetsi ditugu, adin hori hartu dezakegulako pertsonaren identitateko elementuak (hizkuntza barne) finkatuago dauden garaitzat. Adin batetik aurrerakoek, berriz, hitz egiterakoan arazo gehiago izan ditzakete (ahoskera, memoria...). Multzo bakoitzean aztertu beharreko pertsona kopurua zehazteko, Udal Errolda (2010) erabili da.

Talde gaztea eta adinekoa aukeratu ditugu diferentzia bilatu eta aztertu nahi izateagatik. Jakinik ere 35-59 adin-tartea aztertzea interesgarri izanen dela aldaketa nola gertatu den zehatzago ikusteko, ikerketa honetarako denbora-mugak lehenetsunak jartzera eraman gaitu. Izan ere, analisi estatistikoa baliagarri izateko adin-multzo bakoitzak gutxienezko hiztun-kopurua izan behar du; azken batean, Sali Tagliamonteren esan hau bete nahi izan dugu (2006: 33):

It is better to design your sample to be smaller and better circumscribed that to end up with lots of data but not enough funds (or energy) to use it. The size of the sample must necessarily be balanced with the available time and resources for data handling.

3.1.3. *Ikasketa-maila*

Aldagai hau ere azterketa soziolinguistiko askotan ikertu ohi da, adina eta sexua baino gutxiagotan bada ere. *Ikasketa-maila* modu ezberdinetan ulertu eta formulatua ageri da soziolinguistikako lanetan. Guk erreferentziatzat Moya eta Garcíaren lanak (1995) hartu ditugu eta, haiek bezala, hiru ikasketa-maila bereizi ditugu: ikasketa-maila apala (eskola graduatua lortu ez dutenak); ikasketa-maila ertaina (eskola graduatua lortu dutenetatik hasi eta unibertsitate-mailako ikasketak bitartekoak dituztenak); eta ikasketa-maila altua (unibertsitate-mailakoak). Horretarako, erroldako datuak multzoka bildu ditugu, modu honetan:

IKASKETA-MAILAK	LORTUTAKO TITULUA
Maila apala	Ez daki irakurtzen Eskola graduatua baino gutxiago Ikasketarik gabe Lehen hezkuntza bete gabe
Maila ertaina	Eskola graduatua Oinarrizko batxilerra Lanbide heziketa I Lanbide heziketa II Batxilerra BUP, goi-mailako batxilerra Erdi-mailako ikasketak
Maila altua	Unibertsitatean diplomatua Ingeniari teknikoa, arkitektoa Unibertsitatean lizentziatua Goi-mailako ikasketak Doktoretza

3. taula. Ikasketa-maila bakoitzak bere barnean dituen tituluak.
Iturria: Goizuetako Udal Errolda (2010).

3.1.4. Solaskidea Goizuetakoa/kanpokoa

Gizarte-aldagai edo, hobeki esan, «egoera-aldagai» hau aztertzeke arrazoia da goizuetarrek askotan bizitzen duten egoera izatea gaur egun. Alegia, goizuetar gazte eta heldu asko dago gaur egun erdialdeko euskaradunekin harremanetan, dela eskolan, dela lanean. Gaur egun, gazteen erdia joaten da Gipuzkoara ikastera eta beste erdia Leitzara, gutxi gorabehera, eta aurreko urteetan Gipuzkoara jo dute. Lanera ere kanpora ateratzen dira gehienak, normalean Gipuzkoara (Herriani, Donostia, Astigarraga, Oiartzun...) eta gutxiagotan Leitzara eta Iruñe aldera. Errealitate horrek hizkeran eragiten duela uste dugu eta horregatik aztertu nahi izan dugu aldagai hau, horrelako azterketak egitea literatura soziolinguistikoan ohikoa ez izan arren.

Horretarako, aukeratutako hiztunek bi elkarrizketa egin dituzte: bata Goizuetako solaskidearekin eta bestea kanpokoarekin. Kanpoko solaskidearen lana egiten langile prestua eta prestatua izan dugu; Larraitz Garmendia Munduate zaldibiarra. Zaldibian eta Ordizian elkarrizketak egiten aritua da, bertako hizkera aztertzeke ikerketa dialektologiko eta soziolinguistikoetan. Bere herriko hizkera erabili du elkarrizketak egitean. Goizuetako solaskidea ikerketa honen egilea izan da, Goizuetako hizkera aztertzen aritu izandakoa. Elkarrizketa eroso eta hizkera naturala lortzea izan da bi elkarrizketagileek bilatu dutena eta galdetegi banaren bidez bideratu da elkarrizketa. Gizarte-aldagai honen bidez, solaskidea herrikoa (eta eza-guna) edo kanpokoa (eta ezezaguna) izateak duen eragina neurtzea da helburua.

3.1.5. Herrian/kanpoan bizitzeko nahia

Goizuetan urte gutxitan biztanleria asko jaitsi da. 1975ean 1.347 ziren biztanleak eta 2010ean 800era ez ziren iristen. Beraz, 1975etik 35 urteren buruan, orduko biztanleriaren % 60 eskas da Goizueta. Errealitate hori oso presente dago goizuetarrengan eta kezka handia sortzen du. Gure ustez, horren ondorioz, horrelako ideia bat badabil herrian: egitan goizuetarra bazara (eta zure herriaz kezkatzen bazara), bertan bizi nahiko duzu. Horretaz gain, goizuetarra izatea gauza positibo bezala bizitzen da. Lan honen abiapuntuan galdera hauek genituen:

goizuetar sentitze horrek eragin dezake hizkeran? Hau da, goizuetar identitatea eta hizkera lotuta daude? Gure ustea baiezkoa da eta, ikerketa honen bidez, goizuetar identitate «sendoa» (alegia, bertako hizkeraren ezaugarriak erabiltzea) Goizuetan bizi nahi izatearekin lotua agertzen den aztertu nahi izan dugu; zehazki, herrian edo kanpoan bizi nahi izateak hizkeran eraginik baduen ikustea. Aldagai honekin egin denaren oinarrian Labovek (1972) Martha's Vineyard irlan egindako ikerketa dago. Galdetegiaren bidez, non bizi nahiko lukeen eta herrian bizitzekotan ze baldintza bete beharko lirartekeen galdetu zaio hitzunari (bigarren galdera hau egin zaio, ikusteko edozein baldintzatan Goizuetan bizi nahi duen edo ez).

Elkarrizketatuak goizuetarrak izateaz gain, beren bizitzaren zati nagusia Goizuetan pasatu duten hitzunik izan daitezen saiatu gara, hitzun-tipologia mugatzeko asmoz. Gazteen kasuan zailagoa izan bada ere, ikasketak eta lana kanpoan egin ohi dituztelako, bizitzaren zati handiena Goizuetan eman duten lekukoak izan dira elkarrizketatutako guztiak.

Gizarte-aldagai esanguratsuenak banaka aztertu ondoren, taula honetan bildu ditugu gizarte-aldagai horiek, erantzun posibleekin:

1. Sexua (emakumea/gizona)
2. Adina (gazteak/adinekoak)
3. Ikasketa-maila (altua/ertaina/apala)
4. Solaskidea (kanpoko/Goizuetakoa)
5. Herrian/kanpoan bizitzeko nahia (kanpoan bizitzea nahiago/kanpoan bizitzea berdintsu/Goizuetan bizi nahi)

4. taula. Ikerketan aztertu diren bost gizarte-aldagai garrantzitsuenak, erantzun posibleekin.

3.2. Hizkuntza-aldagaiak

Ikerketa honetan, Goizuetan gaur egun hizkuntza-aldakortasunean dauden hizkuntza-aldagaiak aztertu dira. «Hizkuntza-aldakortasuna» diogunean, hitzun berberak gauza bat modu batean baino gehiagotan esan dezaketela adierazi nahi dugu. Normalean bikoteka agertzen da aukera hori, hau da, bi modutan adierazi daitezke zenbait kontzeptu Goizuetan. Ikerketa honetarako aukeratu ditugun hizkuntza-aldagaiek nafarrera/erdialdeko hizkera (askotan, euskara batua) aurkakotasuna biltzen duen bikotea osatzen dute.

Gure ustetan, euskara batua eta erdialdekoa lekua hartzen ari zaio nafarrerari, edo behintzat, hori gertatzen ari dela pentsatzeko arrazoiak badaude, norabide horretaranzko presioak handiak direlako. Gainbehera doan hizkuntza-aldieran jarri dugu arreta, nafarrerakoa den hizkuntza-ezaugarrian, eta bikotearen hasieran paratu dugu (*arrunt/oso*, adibidez). Modu horretakoa ez den beste bikote bat ere aztertu dugu: *-ikan/-ik*. *-ikan* erdialdeko euskararen ezaugarria da, baina Goizuetako hitzun zaharrenek ere erabiltzen dute, eta bilakaera interesgarri bat erakusten duela uste dugulako aztertu dugu. Batetik, *-ikan* erdialdeko euskararen ezaugarri da, baina badirudi hitzunik bertako ezaugarritzat hartzen duela. Bestetik, *-ikan* berria da, baina ez euskara batuaren eraginez sortua. Gure ustea da Goizuetan zaharrek baino gehiago erabiltzen dutela gazteek.

Gainerako hizkuntza-ezaugarri bikoteetan, lehen elementuak nafarrerakoak dira (batzuetan, baita Ipar Euskal Herrikoak ere): aferesia bai/ez, y/j, geroaldiko -en/-go, -ko(t)z/-ko, arrunt/oso, bede/behintzat, deus/ezer, eskuara/euskara, paratu/jarri, zerbette/zeeze. Edota nafar hizkeraren kutsua dute: bakotxa/bakoitza, benpe/behintzat, biño/baño, eztikit/eztakit, gunun/giñun (azken bikote honetan, baita bigarren elementuak ere).

Hizkuntza-aldagaiak aukeratzean, agerpen-maiztasuna hartu da kontuan, zenbat eta maiztasun gehiagoko ezaugarria izan, orduan eta fidagarriagoa delako emaitza. Horretaz gain, euskalkien ezaugarriei buruzko ezagutzan, hitzunekin egindako elkarriketa batzuetan eta ikertzailearen intuizioan oinarrituta egin da hautua. Hizkuntza-aldagai hauek dira aukeratutakoak (aurreneko forma da hipotesiak egiterakoan Goizuetako hizkeraren ezaugarritzat hartu duguna):

	EZAUGARRI-MOTA	HIZKUNTZA-ALDAGAIA	AGERPEN-KOPURUA
1	fonologikoa	AFERESIA BAI/EZ (<i>karri/ekarri</i>)	altua ³
2	fonologikoa	Y/J (<i>yan/jan</i>)	altua
3	morfologikoa	-IKAN/-IK (<i>zertikan/zertik</i>)	altua
4	morfologikoa	GEROALDIKO -IN, -EN/-GO (<i>izain, izango</i>)	ertaina
5	morfosintaktikoa	-KO(T)Z/-KO (<i>delakotz/delako</i>)	apala
6	lexikoa	ARRUNT/OSO	ertaina
7	lexikoa (aldaera)	BAKOTXA/BAKOITZA	apala
8	lexikoa	BENPE, BENPEÑEN, BEDE/BEHINTZAT	ertaina
9	lexikoa (aldaera)	BINO/BANO	altua
10	lexikoa	DEUS/EZER	apala
11	lexikoa (aldaera)	ESKUARA/EUSKARA	ertaina
12	lexikoa (aldaera)	EZTIKIT/EZTAKIT	altua
13	lexikoa (aldaera)	GUNUN/GIÑUN	ertaina
14	lexikoa	PARATU/JARRI	apala
15	lexikoa (aldaera)	ZERBETTE/ZEOZE	apala

5. taula. Ikerketarako aukeratutako hizkuntza-aldagaiak.

Gure hipotesia da aurreko atalean zerrendatutako gizarte-aldagaiak hizkuntza-aldagai bakoitzean aldaera bata edo bestea erabiltzean eragina dutela. Laburtzea helburu, hizkuntza-aldagaiei buruzko azalpen gehiagorik ez dugu ekarri hona; horietan sakontzeko, jatorrizko txostenera jo daiteke.

3.3. Lagina

Demografikoa da ikerketa honetan aukeratutako laginketa-metodoa eta López Moralesen ereduari jarraitu zaio hori egitean (1983). Haren esanetan, Laboven lehen ikerketetatik lortutako arrakasta da laginketa-metodo honen bermea. Hona-koak dira gure laginketa-prozesuaren puntu nagusiak:

3. Gure corpusean agerpen kopurua altua, ertaina edo apala izan den esateko balio hauek erabili ditugu: altua > 300, ertaina = 100-300 artean, apala < 100.

3.3.1. Helburu den populazioa zehaztea

Goizuetako euskal hiztunak dira ikerketaren helburu. Guztira goizuetarrak 789 dira, 2010eko Udal Erroldaren arabera. Goizuetako gizartea egoki errepresentatzea bilatu da aukeratutako laginaren bidez. Lagin hori sortzeko gizarte-aldagai batzuk hartu ditugu kontuan; hizkuntza-aldakortasuna ikertzeko garrantzitsu direnak eta erroldaren bidez atera daitezkeenak hirurak. Segidan heldu den puntuan azalduko da aukera nola egin den.

3.3.2. Lagina sortzeko gizarte-aldagaiak aukeratzea

Laginketa egiteko orduan, egoera bakoitzean garrantzitsuenak diren aldagai soziolinguistikoak hartzen dira kontuan. Garrantziaz gain, beste faktore bat ezin bestekoa da: datuen eskuragarritasuna. Errolda izan ohi da datu horiek eskuratzeko iturria, eta guk ere hori erabili dugu. Ikerketa honetan, dagoeneko azaldu ditugun hiru gizarte-aldagai hartu dira kontuan lagina sortzeko: adina, sexua eta ikasketa-maila.

3.3.3. Laginaren neurria finkatzea

Hona iritsita, badakigu zein den aztergaia (Goizuetako hiztunak) eta zeren arabera aukeratu lagina (adina, sexua eta ikasketa-maila). Baina zenbat lagun aztertu behar dira emaitzak fidagarriak izateko? Kantitatea zehazteko, aztertuko dugun aldagai-kopurua hartu behar da kontuan. Horren arabera jarri ahalko ditugu gutxienekoak, Guyren arabera (1980, *in Chambers* eta beste 2002: 29):

The question depends most directly on the number of independent variables (...). How many subjects should fill each cell? The simple answer is: the more the better (...). As a rule of thumbs, five persons per cell is often adequate, assuming the cells are well-defined in terms of local social categories.

5 pertsona da, Guyren ustez, gizarte-aldagai bakoitza ordezkatzeko egokia den kopurua. Arloko ikertzaileen arabera, ikerketaren izaera eta helburuak, lagin errepresentagarria izatea eta aldagai-kopurua hartu behar dira kontuan lagina sortzerakoan (Wölk 1976, *in López Morales* 1983). Gure kopurua zehaztu aurretik, hizkuntza-aldakortasunaren ikerketetan erabili diren laginen neurria aztertu dugu eta gehienetan kopuruak oso apalak direla esan behar da: % 0,02 (López Morales 1983), % 0,05 (Trudgill 1974), % 0,081 (Labov 1966), % 0,1 (Calero 1993)... Baina horiek guztiak hirietan egindako ikerketak dira, ez herri ttiki batean, gure kasuan bezala. Lekuko-kopurua ikerketaren izaerari egokitzea iritzi diogu onena eta Goizuetako biztanleen % 5 ikertzea erabaki dugu; honela Guyk paratutako gutxienekoa hurbiltzen gara. Segidan aurkeztuko ditugu kopuru zehatzak.

3.3.4. Lagina sortzea

Goizuetan 789 biztanle direla esan dugu (2010eko Goizuetako Udal Errolda), eta baita horietatik 10-34 eta 60-88 adin-multzoak aztertu ditugula ere. Adin-multzo horretako biztanleak 403 dira, eta hori hala izanda, gazteen eta adinduen % 5eko lagina 19 goizuetarrek osatu dute. Honela banatu dira kopuruak, *adina*, *sexua* eta *ikasketa-mailaren* arabera: 9 gazte eta 10 adineko; 9 emakume eta 10 gizon; ikasketa-maila altuko 4, maila ertaineko 9 eta maila apaleko 6.

GIZARTE-ALDAGAIA	LEKUKO-KOPURUA
Sexua	
Emakumea	9
Gizona	10
Adina	
Gaztea	9
Adinekoa	10
Ikasketa-maila	
Apala	6
Ertaina	9
Altua	4

6. taula. Goizuetako ikerketaren lagina, sexu, adin eta ikasketa-mailaren arabera.

3.4. Elkarrizketa-metodoa, galdetegiak eta corpusa

Elkarrizketa gidatua izan da erabili den metodoa. Elkarrizketaren gidoiak elkarrizketatzaileen eta elkarrizketatuen arteko solasa errazteko helburua du batetik, eta elkarrizketatuen datuak eskuratzea, bestetik. Datu horietatik atera dira 4. gizarte-aldagaiaren ondorengo gizarte-aldagaien erantzunak: *herrian/kanpoan bizitzeko nahia, hizkuntza-eraginak, heziketa-hizkuntza, erdararen erabilera aitortua eta hizkeren buruzko iritzia* (lehena bakarrik ari gara aztertzen laburpen honetan).

Gizarte-aldagaiak eskuratzeko galdetegia egiteko hainbat eredu erabili dira: Laboven eredu (1966), Borregorena (1981) eta Moya eta Garcíarena (1995). Gehienbat, dena den, hizkera eroso, arrunta eta librea lortzeko galderak egin dira, herriko bizimoduaren gainekoak asko. Galdetegiaren bukaeran, elkarrizketa sozioetnografikoetan egin ohi den bezala, hizkuntza bera bihurtu da elkarrizketagai.

Ia beti elkarrizketa-egilea eta lekukoa bakarrik egon dira grabaketetan, aldi berean batean familia artekoen bat inguratu bada ere. Elkarrizketatzaile bakoitzarekin elkarrizketa bana egin dute lekukoek; herrikoarekin bata eta kanpokoarekin bestea. Elkarrizketa bakoitzetik lehen 15 minutuak transkribatu eta erabili ditugu; beraz, herriko eta kanpoko solaskidearekin egindako elkarrizketekin, lekuko bakoitzeko 30 minutu osatu dute ikerketaren corpusa. Guztira, ia 10 orduko corpusa dugu. Transkripzio fonemikoa erabili da (/edan/) eta ez fonetikoa ([eðan]), sortzea eta irakurtzea errazten duelako. Helburu berarekin, *h*-a gorde da, Goizuetan hasperena ahoskatzen ez bada ere. Erabili diren transkripzio-irizpideak Karmele Etxaberen lanetik (2010) hartu dira.

Lehenengo ikerketa baterako egindako grabaketak baliagarri izan diren kasuetan, horiek erabili ditugu eta gainerakoak (gehienak) ikerketa honetarako egindakoak dira. Grabaketak 2008ko martxoan eta apirilean eta 2010eko azaroan eta abenduan egin dira.

3.5. Softwarea: Goldvarb X

Kalkulu estatistiko guztiak eskuz egin ordez, programa informatiko bat erabili dugu, Goldvarb X izenekoa. Goldvarb X soziolinguistika bariazionistan erabili den Varbrul (*variable rule program*) programaren bertsio hobetua da, eta doanekoa; eskertzekoa da horrelako tresnak eskura izatea. Azalpen guztiak eta programa bera Tagliamonteren web orritik atera ditugu:

<<http://individual.utoronto.ca/tagliamonte/goldvarb.htm>>. Beste iturri bat ere erabili dugu programa erabiltzen ikasteko, Francisco Moreno Fernándezen «Sociolingüística, estadística e informática» artikulua (1994), hain zuzen.

Programa honek ariketa estatistiko asko egiteko aukera ematen du, eta aukera horietatik zati tiki bat bakarra baliatu dugu gure lanerako. Zehatz esateko, aztergai ditugun hizkuntza-aldagaiak gizarte-aldagaien arabera kodetu ditugunean, programari eskatu diogu hizkuntza-aldagai horiek gizarte-aldagaien arabera zer banaketa zuten erakusteko. Berak esan digu zenbat hizkuntza-aldagai erabili dituzten hiztunek, aztertu nahi genituen gizarte-aldagaika. Adibidez, zenbat emakumek erabili duten aferesia eta zenbatek ez, edota solaskidea herrikoa edo kanpokoa izateak gazteen eta adinekoen artean eraginik izan duen. Alegia, gure hipotesiak bete diren edo ez Goldvarb-ek erakutsi dizkigun emaitzetan ikusi ahal izan dugu.

4. Emaitzak

Hizkuntza-aldagaiek emaitza koherenteak eman dituztela azpimarratzekoa da. Batzuek token-kopuru tikiak izan arren, token-kopuru altua duen hizkuntza-aldagaien emaitza beretsua erakutsi dute. Hau da, hipotesi berberak bete dira hizkuntza-aldagai gehienetan, bakoitzean adibide asko edo gutxi bilduta ere. Hona emaitza horiek bi taulatan; lehena hizkuntza-aldagai fonologiko, morfologiko eta morfosintaktikoena da eta bigarrena lexikoarena.

GIZARTE-ALDAGAIA	aferesia bai/ez	-ikan/-ik	y/j	-en, -in/ -go	-ko(t)z/ -ko	GUZTIRA (5etik)
1. Sexua	X	BAI	X	BAI	X	2
2. Adina	BAI	BAI	X	BAI	BAI	4
3. Ikasketa-maila	BAI	X	X	BAI	BAI	3
4. Solaskidea	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	5
5. Herrian/kanpoan bizitzeko nahia	X	X	X	X	X	0
6. Goizuetakoekin harreman-maila	BAI	X	BAI	X	BAI	3
7. Nafarroakoekin harreman-maila	X	Hipotesirik ez	X	BAI	X	1
8. Erdialdekoekin harreman-maila	BAI	BAI	X	BAI	BAI	4
9. Erdararekin harreman-maila	BAI	X	BAI	BAI	BAI	4
10. Heziketa-hizkuntza	BAI	BAI	X	BAI	BAI	4
11. Erdararen erabilera aitortua	X	X	X	X	X	0
12. Goizuetako hizkerarekiko iritzia	X	BAI	BAI	X	X	2
13. Nafarrerarekiko iritzia	X	Hipotesirik ez	BAI	X	X	1
14. Erdialdeko euskararekiko iritzia	X	X	BAI	X	X	1
15. Batuarekiko iritzia	BAI	X	BAI	X	X	2
GUZTIRA (15etik)	7	6 (13tik)	6	7	6	32

7. taula. Fonologian, morfologian eta morfosintaxian hipotesiak bete diren edo ez, gizarte-aldagaika.

GIZARTE-ALDAGAIA	Biño/baño	Eztikit/eztakit	Bakotx/bakotz	Arrunt/oso	Patu/jari	Esku-/eusk-	Benpe, bede/behintzat	Gunun/giñun	Deus/ezer	Zerbette/zeoze	GUZTIRA (10etik)
1	BAI	BAI	BAI	X	X	X	X	BAI	X	X	4
2	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	10
3	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	X	X	8
4	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	adibiderik ez	X	X	BAI	BAI	7 (9tik)
5	X	X	X	BAI	X	X	X	X	X	BAI	2
6	BAI	BAI	BAI	BAI	X	BAI	BAI	BAI	BAI	X	8
7	X	X	X	X	X	X	X	BAI	X	X	1
8	BAI	BAI	BAI	X	BAI	BAI	BAI	BAI	X	X	7
9	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	X	X	BAI	BAI	BAI	8
10	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	10
11	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	0
12	X	X	X	BAI	X	X	adibiderik ez	X	X	X	1 (9tik)
13	X	X	X	BAI	X	X	X	X	X	X	1
14	BAI	X	X	X	X	X	X	X	BAI	X	2
15	BAI	X	X	X	X	X	BAI	X	BAI	X	3
GUZTIRA (15etik)	9	7	7	8	5	5 (14tik)	6 (14tik)	7	6	4	
AGERPEN-KOPURUA	803	366	32	148	55	147	115	124	78	63	

8. taula. Lexikoan hipotesiak bete diren edo ez, gizarte-aldagaia.

«BAI» idatzi dugu hipotesiak bete diren kasuetan eta «X» bete ez direnetan. Kasu batzuetan, ez dugu hipotesi zehatzik sortzerik lortu, eta hala adierazi dugu taulan («hipotesirik ez»). Beste batzuetan, ez dugu hizkuntza-aldagaien adibiderik topatu eta «adibiderik ez» idatzi dugu, lexikoko taulako 4. eta 12. gizarte-aldagaietan hain zuzen. Kasu horietan, hipotesien betetzea kontatzean, hizkuntza-aldagai bat gutxiago dagoela oroitu behar da; horregatik jarri dugu «guztira» laukietan «9tik» edo «14tik». Hizki lodiz idatzi dira hipotesiak hizkuntza-aldagai askotan bete dituzten gizarte-aldagaiak.

Horrela, bada, bereiz aztertu ditugun hizkuntza-aldagaietako emaitzek bat egiten dutela ikusten dugu, hizkuntza-aldagai guztiak kontuan hartuz, gehien betetzen diren hipotesiak berberak direlako: 2, 3, 4, 6, 8, 9 eta 10. gizarte-aldagaietako hipotesiak. Hurrengo taulan, hizkuntza-aldagai guztien emaitzak bildu ditugu eta, errazago ikusteko, hipotesien betetze-mailaren arabera zerrendatu ditugu:

GIZARTE-ALDAGAIA	BETE DIREN HIPOTESIAK		GUZTIRA (15ETIK)
	Hizkuntza-aldagai fonologiko, morfologiko eta morfosintaktikoak (5etik)	Hizkuntza-aldagai lexikoak (10etik)	
2. Adina	4	10	14
10. Heziketa-hizkuntza	4	10	14
9. Erdararekin harreman-maila	4	8	12
4. Solaskidea	5	7	11 (14tik)
3. Ikasketa-maila	3	8	11
6. Goizuetakoekin harreman-maila	3	8	11
8. Erdialdekoekin harreman-maila	4	7	11
1. Sexua	2	4	6
15. Batuarekiko iritzia	2	3	5
12. Goizuetako hizkerarekiko iritzia	2	1	3 (14tik)
14. Erdialdeko euskararekiko iritzia	1	2	3
5. Herrian/kanpoan bizitzeko nahia	0	2	2
7. Nafarroakoekin harreman-maila	1	1	2
13. Nafarrerarekiko iritzia	1	1	2

9. taula. Gizarte-aldagaiek bete dituzten hipotesien kopurua, betetze-mailaren arabera zerrendatuak.

Heziketa-hizkuntzak ere, *adinak* bezala, 14 hipotesiak bete ditu, baina ez zaigu azpimarragarria iruditzen *adina* aldagaiaren emaitza berberak eman dituelako. Alegia, gazteak diren guztiek gehiena euskaraz ikasi dute eta adineko guztiek batez ere gaztelaniaz, eta adinaren eraginez sortutako emaitzak direla uste dugu, ez heziketa-hizkuntzaren eraginez.

Erdararekin harreman-mailak 12 hipotesi bete ditu, gure harridurarako. Kopuru altua da, baina hori ere ez dugu hizki lodiz adierazi, haren fidagarritasunean zalantzak ditugulako. Esperimentua egin nahi genuen eta emaitzak onak izan dira. Baina sakonago aztertu behar da, ondorio baliagarriak ateratzeko.

Azpimarratzekoa da 8. gizarte-aldagaitik behera hipotesien betetze-maila asko jaisten dela, 8.ak bete duen kopurutik ia erdira, hain zuzen.

5. Ondorioak

5.1. Gizarte-aldagaiekin lotutako ondorioak

Lan honetako emaitzetatik atera dezakegu gizarte-aldagai batzuk besteak baino fidagarriagoak eta baliagarriagoak direla Goizuetako hizkuntza-aldakortasuna neurtzeko. Alegia, hizkuntza-aldagai gehienetan gizarte-aldagai berberen hipotesiak bete izanak gizarte-aldagai horien portaeran koherentzia dagoela erakusten digu, zehazki, gizarte-aldagai hauetan: *adina* (2), *ikasketa-maila* (3), *solaskidea* (4) eta *Goizuetako eta erdialdeko hiztunekiko harreman-maila* (6 eta 8). Gizarte-aldagai horiek denek erakutsi dute aldakortasun handiagoa espero genuen egoeran erdialdeko eta euskara batuko hizkuntza-aldaki gehiago erabili direla. Aldakortasun handiagoa erakutsi dute gazteek, ikasketa-maila altua dutenek, kanpoko solaskidearekin hizketan ari zirenek, goizuetarrekin harreman gutxi dutenek eta erdialdeko hiztunekin harreman handia dutenek. Gainerako gizarte-aldagaiek ez dituzte bete esperotako hipotesiak, *sexuak* (1) eta *Goizuetan bizitzeko nahiak* (5) barne. Gure ustez, 9. taulako bost gizarte-aldagai azpimarratuak dira fidagarriak, joerak antzemateko baliagarri zaizkigunak.

Esan dugun bezala, *adina* eta *ikasketa-maila* beste ikerketa soziolinguistikoetan erabilitako aldagaiak dira eta aldagai horien hipotesiak betetzea espero izatekoa zen, hein handi batean. Goizuetako kasuan ere bete direla baieztatu dezakegu orain. Horretaz gain, esan behar da *adina* eta *ikasketa-maila* elkarrekin lotuak zeudela ohartu garela ikerketan zehar. Adinaren kasuan, gazteak izan dira berritzaileagotzat jo ditugunak eta, ikasketa-mailaren kasuan, ikasketa-maila altua dutenak. Eta lotura hemen dago: ikasketa-maila altua dutenak, gehienetan, gazteak dira. Hemen garbi ikusi dugu beste gizarte-aldagai askotan ere ikusten dena: errealitatea konplexua dela eta, maiz, eragin asko elkarrekin doazela, gurutatu egiten direla eta ezin dugula nahi bezala bereizi; ezin dugu nahi dugun errealitate zati hori moztu eta aztertu. Adinarekin lotuta atera dugun beste ondorioa da tarteko belaunaldia (34 urtetik 60 urte bitartekoa) ikertzea garrantzitsua dela aldakortasuna nola gertatu den jakiteko. Izan ere, adinekoen multzoko gazteenek, 60-65 urte bitartekoek, dagoeneko nafarrerako ezaugarri gutxiago erabiltzen dituzte zaharragoen aldean, eta adin-tarte hori ere erdiko belaunaldikoekin batera aztertu beharko litzateke, segur aski. Erdiko belaunaldia 1945-1975 tartean

jaiotakoek osatuko lukete, 1968an sortu zen euskara batuaren eragina izan zutenek, baina eskolan gaztelaniaz ikasi zutenek.

*Solaskide*arena proba bat izan da, esperimendu bat, eta emaitzak baliagarriak izatea oso pozgarri egin zaigu. Gizarte-aldagai edo, hobeki esan, «egoera-aldagai» hori erabili dugu goizuetar gehienek gehienetan bizitzen duten egoera delako gaur egun. Alegia, goizuetar gazte eta heldu asko dago egunero erdialdeko euskaradunekin harremanetan, dela eskolan, dela lanean. Horregatik, erdialdeko hiztun batekin hitz egitean hiztunak duen jokaera linguistikoa aztertu nahi izan dugu eta emaitzak argigarriak izan dira: aztertu ditugun 15 hizkuntza-aldagaietatik 12tan erdialdeko edo euskara batuko aldakia gehiago erabili dute kanpoko solaskidearekin, herrikoarekin baino. Bete ez den hiru kasuetako batean, *eskuara/euskara* hizkuntza-aldagaia kanpoko solaskidearekin ez duela inork erabili esan behar da, ez *euskara* moduan, ez *eskuara* moduan; beraz, ezin dugu kontuan hartu. Beste biak hartuko ditugu salbuespentzat: *bede*, *benpe/behintzat* eta *gunun/giñun*.

Gainerako gizarte-aldagaiak ez dute alde zurretik pentsatu genuena bete, ezta *sexuak* ere. Emakumezkoen kasuan, espero genuen erdialdeko edo euskara batuko forma gehiago erabiltzea, baina hori 15 hizkuntza-aldagaietatik 6tan bakarrik gertatu da. Beraz, gainerako 9 hizkuntza-aldagaietan gizonezkoak izan dira erdialdeko edo euskara batuko forma gehiago erabili dituztenak, berritzaileenak. Hori bada ondorio bat, azken batean, emakumea ez, baizik eta gizona ageri zaigulako pixka bat berritzaileagoa, diferentzia beste gizarte-aldagaietan bezain nabaria ez bada ere.

Sexuaren gaian interes berezia genuen; literatura soziolinguistikoan emakumezkoak jo ohi dira berritzailetzat, Mendebaldeko gizartean bederen, baina iritzi horrek baditu zertzelada finagoak. Emakumeak berritzaileagoak izatearen hipotesiak ez du edonola eta leku guztietarako balio. Laboven esanetan, adibidez, hizkuntza-arauei buruz duten hautemateak mailakatzen du emakumeen hizkuntza-jokaera. Hau da, haren ikerketen arabera, emakumeek ez dute berdin jokatzen «goitik» heldu den arau baten aurrean edo «behetik» heldu denaren aurrean. Printzipio batzuen bidez adierazten ditu jokaera horiek:

Principle 2: The linguistic conformity of women. For stable sociolinguistic variables, women show a lower rate of stigmatized variants and a higher rate of prestige variants than men (2001: 266).

Principle 3: In linguistic change from above, women adopt prestige at a higher rate than men (2001: 274).

Principle 4: In linguistic change from below, women use higher frequencies of innovative forms than men do (2001: 292).

Eta hizkuntza-ezaugarrien izaeraren araberako jokaera horri «generoaren paradoxa» deitzen dio:

Gender paradox: Women conform more closely than men to sociolinguistic norms that are overtly prescribed, but conform less than men when they are not (2001: 293).

Gure ikerketan ez dugu gaia aztertu ikuspegi horretatik; ez dugu aztertu esplizituki txartzat jotako eta jo gabeko hizkuntza-aldagaien aurrean hizkuntza-jokaera ezberdina den. Laboven «change from above» estandarren eraginaren norabidean aldatzen direnak izango lirateke, eta «change from below» estandarren eraginaz bestelako aldaketak. Gure hizkeraren kasuan, hipotesi hori ez dela beti betetzen uste dugu, emakumezkoek gehiagotan erabili dutelako euskara batukoa ez den forma. Euskara batua berria denez eta Goizuetako adinekoek batuaren eragin gutxi dutenez, gazteenen jarduna bakarrik aztertu beharko litzateke emaitzak diferentek diren ikusteko. «Change from below» deitutakoei dagokienez, bestelako emaitza batzuk ikusi ditugu. Estandarrerantz ez doan aldaketa *-ik/-ikan* eta *gunun/giñun* hizkuntza-aldagaietan ikusi dugu. Kasu hauetan, *-ikan* eta *giñun* dira berriak eta horiek emakumezkoek gehiago erabili dituzte. Laboven hipotesia kasu honetan gure datuetan bete da.

Beraz, sexuari dagokionez, ondorio bat baino gehiago atera ditugu. Batetik, emakumeak ez dira gizonezkoak baino berritzaileago agertu gehienetan, espero genuen bezala. Bestetik, belaunaldi bakoitzeko emakume eta gizonek joera diferentek izan ditzakete eta belaunaldika sexu bakoitzak zer hizkuntza-joera duen aztertzea interesgarria litzateke. Eta azkenik, fenomeno konplexua denez sexua-rena eta generoarena, sakonago aztertuta emaitza baliagarriagoak aterako direla uste dugu.

Lan hau bukatzen ari ginela eskuratu dugun Amaia Apaluzaren tesian (2010: 134) topatu dugu gure «paradoxentzat» azalpen on bat: «Caminoren hitzak hartuz, «berritzaile izatea ez dagokio norberaren generoari, pertsona bakoitzak duen joka-bideari, rolari eta izaerari baizik, irekia edo irekizale izateari, bizi izan den egoerari eta errealitateari» (2009: 299-300)».

Gainerako gizarte-aldagaietan, horietan eraikitako hipotesiak ez zirela zuzenak ohartu gara ikerketak aurrera egin ahala. Aldiro aurkitu dugu arazoren bat eta errealitate konplexua ulertzeko tresna sinpleegiak direla ohartu gara. Esan bezala, laburpen honetan lehen bost aldagaiak aztertuko ditugu, eta 5.a, *herrian/kanpoan bizitzeko nahia*, hipotesia bete ez duen kasuetako bat izan da. *Herrian/kanpoan bizitzeko nahia* gizarte-aldagaiaren bidez, goizuetar identitatea hizkeran nola islatzen den aztertu nahi izan dugu, esan dugun bezala. Esperimentu honen emaitzak ez dira izan esperotakoak, segur aski, goizuetar identitatea ez delako galdera soil horren bidez jasotzen. Uste dugu herriaren izaerarekin gehiago identifikatzen direnek bertako hizkuntza-ezaugarri gehiago erabiliko dituztela, ezaugarri horiek markatuak diren kasuan bederen. Baina lotura hori aztertzeko, «herriarekiko identifikazioa» hobeki neurtu behar da. Horretaz gain, gizarte-aldagai honen baliagarritasun eza bildu diren erantzunekin lotua dago. Hobeki esan, erantzun horien banaketarekin. Izan ere, elkarrizketatutako gehienek erantzun posible berbera eman dute. Alegia, «Goizuetan bizi nahi duzu?» galderari gehienek baietz erantzun diote; 19tik 13k, hain zuzen. 2k esan dute kanpoan biziko liratekeela eta 4k berdin zaiela. 13ko multzoa osatzen dutenen emaitzak fidagarriak dira, baina 2ko multzokoak? Hor ere izan du arazoa gizarte-aldagai honek.

Lan honen helburua zen gure intuizioak frogatzea, eta ikusi dugu gizarte-aldagai batzuetan emaitzak koherenteak izan direla eta beste batzuetan ez. Beraz,

gure intuizioak batzuetan fidagarriak izan dira, eta beste batzuetan ez edo, bederen, ez dugu behar bezala asmatu intuizio horiek probatzen. Segur aski, hizkuntzaren eta garunaren mekanismoak konplexuegiak dira, gizarte-aldagaietan egin ditugun eragiketa sinpleen bidez aztertzeko.

5.2. Hizkuntza-aldagaiekin lotutako ondorioak

Hizkuntza-aldagaiek emaitza koherenteak eman dituztela azpimarratu dugu emaitzen atalean. Batzuek token-kopuru ttikia izan arren, token-kopuru altua duten hizkuntza-aldagaien emaitza bertsua erakutsi dutela esan dugu. Hau da, hipotesi berberak bete dira hizkuntza-aldagai gehienetan, bakoitzean adibide asko edo gutxi bilduta ere. Datu horiek zehatzago ikusteko, jo emaitzen atalera, 7, 8 eta 9. tauletara. Taula horietako emaitzetan ikus dezakegu gizarte-aldagai batzuk fidagarriagoak direla beste batzuk baino; alegia, gizarte-aldagai batzuek emaitza koherenteak erakutsi dituztela hizkuntza-aldagai askotan, eta horrek egiten ditu fidagarri.

5.3. Aldaketarekin lotutako ondorioak

Ondorioen atala bukatzeko, Goizuetako hizkeraren azterketa hau eginda, aldaketaren gainean atera ditugun ondorio nagusiak azpimarratu nahi genituzke. Lanean zehar ikusi dugu aldaketa badagoela, aztertu ditugun hizkuntza-aldagaiak gazteek gutxiago erabiltzen dituztelako, oro har. Are gehiago, *-kotz*, *eskuara* eta *gunun* hizkuntza-aldagaien kasuan, aldagai horiek gazteen mintzotik ia desagertu direla esan dezakegu, adinekoen mintzoan bizi-bizi diren arren. Aztertu ditugun 15 hizkuntza-aldagaietatik 3 dira horiek eta gainerakoak gazteek ere erabiltzen dituzte, gutxiago bada ere. *y*-ren erabilera izan da salbuespena, adinekoek eta gazteek berdin erabili dutelako, erabilera altuarekin, gainera (% 97,7); geroaldiko *-en* gazteek (% 41,1) adinekoek (% 65,1) baino gutxiago erabili dute; aferesia ere gazteek (% 36,4) adinekoek (% 58,1) baino gutxiago; *-ikan* bukaerarekin alderantziz gertatu da, gazteek gehixeago (% 50,6) erabili baitute adinekoen aldean (% 46,2), bere izaera berezia dela-eta. Lexikoan adinekoen belaunalditik gazteenerako aldeak handiagoak izan dira gehienetan, *binu* eta *deus* aldakien kasuan izan ezik; hizkuntza-aldagai horiek adinekoek gehiagotan erabili arren, diferentzia ttikia da eta bi belaunaldietakoek gehienetan erabili duten aldaerak dira (% 89tik goiti). *Eztikit*, *patu* eta *zerbette* aldakien kasuan adinekoen erabileraren erdira jaitsi da gazteena eta gainerakoetan (*arrunt*, *bakotxa* eta *benpe/bede*) oraindik nabariagoa da aldaketa.

Oro har, beraz, gazteek gutxiago erabiltzen dituzte aztertu ditugun hizkuntza-aldagaiak, baina beren ohiko hizketan erabiltzen segitzen dute. Eta hori da azpimarratu nahi duguna. Izan ere, euskara batuaren eta erdialdekoaren eragina handia dela ez da atzendu behar; hezkuntzan, komunikabideetan eta eguneroko lan-harremanetan nagusi dira eta, hala ere, hiztunek herriko ezaugarriak erabiltzen segitzen dute, hein ttikiagoan bada ere.

Hori esatearekin batera, oroitarazi nahiko genuke *-ikan* bukaerarekin gertatzen ari dena. Erdialdeko euskararen ezaugarria da, baina gure hiztun-senak esaten digu goizuetarrak ezaugarri hori Goizuetakotzat duela. Gure datuetan ikusi dugunez, adinekoek baino gehiago erabili dute gazteek *-ikan* eta, era berean, erdialdeko euskaradun hiztunarekin herrikoarekin baino gutxiago. Hortik ateratzen

dugun ondorioa da gazteek *-ikan* erabiltzen dutenean ez direla ari pentsatzen erdialdeko ezaugarria dela, bestela, erdialdeko hitzunarekin zergatik gutxiago erabili? Nolabait, *-ikan* erabiltzean, badakite euskara batukoa ez den ezaugarria erabiltzen ari direla, ezaugarri markatua dela. Gure ustez, ezaugarri horren erabilera indartzen aritzeak bertako euskararen bizitasuna erakusten du. Iñaki Caminok dioen bezala (1998: 176), «Leku batzuetan euskararen halako hibridazio bat egiten baldin bada, beharbada hori euskara biziaren seinalea da».

5.4. Euskal Herriko beste hizkerekin alderatuta, ateratako ondorioak

Alderaketa moduan, Euskal Herriko beste eskualde batzuetan gertatzen ari dena ekarri nahi izan dugu hona. Badakigu herri bakoitzeko egoera diferentea dela, eta kasu bakoitzeko egoera sakonago aztertu behar dela. Baina hemen ez dugu azterketa sakona eginen, orokorrean gertatzen ari denaren azaleko irakurketa bat baizik. Hurbilketa ttiki hau egiteko, herri eta eskualde euskaldun batzuk hartuko ditugu aintzat: Dima, Bermeo, Imotz, Basaburua Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu, Luzaide eta Oiartzun. Dimako (Bizkaia) kasuarekin hasiko gara, Gotzon Aurrekoetxearen lana (2008: 25) oinarritzat hartuz. Haren esanetan, aldaketa handiak gertatzen ari dira Dimako euskarari:

...ikerketa honek erakusten du hizkuntza bariazio ikaragarri handia gertatzen ari dela Dimako hizkeran gaur egun. Bariazio hau uste baino handiagoa da eta norabide desberdinetan gauzatzen da: aldaera estandarreranzko joera eta belaunaldien arteko kulturizazioa. Bi belaunaldien arteko hizkuntza harremanek erakusten dute ez dagoela kohesio linguistiko handirik. (...) Hiru parametroak (lexikoa, sintaxia eta morfologia) kontuan hartuz % 42 kasutan erantzun desberdinak bildu dira. Honek adierazten du belaunaldi batean hizkuntza heren bat aldatu dela.

Bizkaian jarraituz, Bermeoko gazteek bertako aditza nola ari diren aldatzen aztertu zuen J. I. Hualdek (2000). Hualdek dio Bermeoko gazteek aditz-sistema guztiz berregituratu dutela eta, ondorioz, *saran* 'zinen', *naien* 'nintzen' gisako adizkiak sortu dituzte iraganerako (adinekoek *sinen*, *nitzen*).

Nafarroan, Amaia Apalauzak sakon aztertu berri ditu Imotz, Basaburua Nagusia, Larraun eta Araitz-Beteluko hizkerak (2010). Gazteen mintzoari buruz ari denean (2010: 121-122), aldakortasun handia sumatzen duela dio. Soziolinguistikako ikerketa sakonaren falta azpimarratzen duen arren, haren esanetan, badirudi gipuzkoar ereduak gero eta indar handiagoa dutela Araitz-Betelun. Gazte batzuen kasuan, «etxean aldeatea ta kalean besteatea» hitz egiten dutela dio. Imotzar, basaburuar eta larraundar gazteei dagokienez, hetereogeneotasuna da nagusi, «baina joera nagusia da euskaraz ari direnean euskara batua gero eta gehiago erabiltzea» (2010: 122). Honakoa ere gehitzen du:

Oro har, euskarak gehien iraun duen herrietan dago gazteen euskara osasuntsuen, eta oraindik ere beren herriko euskararen ezaugarriak gordetzen dituzte gazte batzuek; alabaina, etxetik edo herritik kanpo hizkera hibridoa erabiltzea da joera nagusia eredu estandarra eta eredu dialektala nahasian erabiltzea, alegia. Etena nabaria da, beraz (2010: 127).

Nafarroaren beste aldean, Ipar Euskal Herriarekin mugan den Luzaideko hizkuntza-aldakortasuna aztertu du Ekaitz Santaziliak (2009). Haren esanetan, euskalkia galtzen ari da Luzaiden eta, horren ondorioz, egitura eta lexikoaren pobretzea eta euskalkiaren trinkotzea. Trinkotze horrek bariazio gutxi agertzea eragiten duela dio⁴. Bestetik, Santaziliak beste fenomeno baten berri eman digu: lehen Garazi eta Luzaideren artean hizkeren arteko continuum bat zegoen eta, gaur egun, gero eta gehiago bereizten ari diren bi hizkera bihurtzen ari omen dira⁵.

Azkenik, Goizuetak mugako duen Oiartzun izanen dugu hizpide. Badirudi, Oiartzunen hizkera asko aldatu dela. Dena den, Bill Haddicanek (2007) egin zuen azterketan, ikusi zuen herri-hizkeraren ezaugarri batzuk estandarrak ordezkatzeko zituen bitartean, beste ezaugarri batzuk mantendu egiten zirela; Oiartzungo hizkeraren ezaugarri «enblematiko» edo bereizgarriak, hain zuzen. Haddicanen ikerketaren arabera, Oiartzunen gertatutako aldaketa ekonomiko eta sozialei emandako erantzuna da, haren hitzetan: «younger Oiartzuners' retention of emblematic local forms is a way of staking a claim to a local identity undercut by recent housing development and suburbanization» (2007: 677).

Oiartzunen hizkuntza-aldagai batzuekin gertatu dena Goizuetan ere ikusten dugu. Goizuetarrak bere herria eta hizkera maite ditu eta bere gainbehera sumatuta, dagoena mantentzen saiatzen da: herriaren biztanle-kopurua, hizkuntza eta baita hizkera ere. Lanean zehar ikusi dugun bezala, hizkuntza-ezaugarri batzuk galduz doaz eta beste batzuk indarra hartuz. Euskara batuaren eta erdialdeko euskararen eragina handia da eta hitzak gero eta luzeago eta batuago esaten dira eta azentua pixkanaka aldatuz doa. Baina, hizkera aldatzen doan arren, ez dago erabateko etenik adinekoen eta gazteen artean, Apalauzak aztertu dituen eskualdeetan gertatzen den bezala. Goizuetan ez dugu nabari «etxean aldeatea ta kallean besteatea» aritzeko joerarik. Ezta Aurrekoetxeak azaltzen duen bezainbeste aldaketarik ere. Horretarako aurkitu ditugun arrazoiak hauek dira, gure ustez:

- Goizuetan euskarak bizitasuna eta prestigioa du.
- Bertako hizkerak ere prestigioa du bertakoen artean.
- Immigrazio handirik ez dago.
- Jende asko joan da herritik kanpora bizitzera eta horrek bertako gauzak, hizkera barne, mantentzearen aldeko kontzientzia sortu du.

Horretaz gain, pentsatzen dugu azalpena lotua egon daitekeela gazteak duen identifikazio-beharrarekin. Gazteak taldearekiko identifikazio-beharra du eta uste dugu talde-nortasuna Goizuetako hizkeran bertan topatzen dutela. Etxabek bere lanean (2010: 17) idatzitakoa lagungarri zaigu Goizuetan adinduen eta gazteen artean aurkitzen dugun hizkuntza-diferentzia ttikia azaltzeko (hizki lodiak guk paratuak dira):

4. Goizuetan horren kontrakoa gertatzen ari dela esan dezakegu, hizkuntza-aldakortasuna handia baita.

5. Hemen ere, Goizuetan kontrakoa gertatzen ari dela esan dezakegu; harremanak oso ugariak dira erdialdeko euskaradunekin, azken hamarkadetan batez ere, mugikortasuna handitu denetik. Noski, probintzien arteko mugak ez du Garazi eta Luzaide arteko estatu-mugak duen pisua, inondik ere.

Apalauzak (2005: 67) dio adinaren arabera aldatu egiten dela hizkuntza, eta gazteek bultzatzen dituztela berrikuntza eta aldaketa nabarmenenak. **Gazteak gazte dira mundu osoan, eta hizkuntza izan ohi da horien identifikazio-tresna garrantzitsuenetariko bat.** Apalauzaren iritziz **taldearekin identifikatzeko behar handia izaten dugu gaztaroan; hau da, talde-nortasuna oso indartsua da gazte-denboran.** Eta hizkuntza aldatzea edo gazteen hizkera sortzea eta garatzea da taldearekin identifikatzeko moduetako bat.

Apalauzaren aipu honetan, gazteek bultzatzen duten berrikuntza da mintzagai, gazteen hizkera nola sortzen den azaltzeko. Guk, ordea, identifikazio-behar horretan jarri dugu arreta. Goizuetan, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, ez dugu gazte-hizkera nabaririk aurkitu, ez bada erdararekin zipriztindutakoa. Edozein moduz, Goizuetan gaztelania gutxi erabiltzen da, esamolde gutxi batzuetan (*o sea, es que, tio, madarikazioak...*) eta, gure ustez, hori gertatzeko arrazoi nagusia da Goizuetako gazteek behar duten identifikazioa, talde-nortasuna, goizuetarra izateak ematen diela. Gainera, desberdintasuna adierazteko bidea ere ematen die herri-hizkerak, Imanol Esnaolak aipatzen duenaren bidetik (1999: 104):

...gazteak dibergentzia adierazi beharra dauka. Psikolinguistikak sakon aztertutako fenomeno hau gaur egun nahikoa zehaztasunez ezagutzen dugu, eta badakigu hizkuntza burubaiespenerako tresna dela kasu askotan. Hau da, bestearengandik bereizteko, edo bestela esanda, izaera propio edo berezia indartzeko erabiltzen dela. Eta horregatik gazteak ez du bere guraso, irakasle edo telebistako albistegietako esatarien moduan hitz egin nahi lagunartean dagoenean, haiek ez datozelako talde hori batzen duen hariarekin bat. Eta desberdintasuna adierazi beharra dauka.

Gazteak duen bereizteko beharra Goizuetako hizkerak asetzen die herritik kanpora ateratzean edo hizkuntza formalaren aurrean. Gurasoengandik bereizteko ez dio balio, hori hala da. Dena den, gure ustez, Goizuetako hizkera tresna baliagarria da Goizuetako gazteek behar duten identifikazioa bilatzeko eta desberdin sentitzeko eta horrek azaldu dezake belaunaldien arteko hizkuntza-diferentzia ez hain handia.

Hizkeraren aldaketa ttikia izatearen azken arrazoi gisa adieraziko dugu Goizuetan gazteek duten harreman-sare estua. Nahiz eta kanpora jo ikastera edo lanera, gehien-gehienek herrian kuadrila dute eta harremana mantentzen dute haiekin.

Aipu bibliografikoak

- Apalauza, A. (2010): *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*, doktore-tesia (argitaratu gabe), Gasteiz.
- Aurrekoetxea, G. (2008): "Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran", *Euskalingua*, **12**, 17-26.
- Borrego, J. (1981): *Sociolingüística rural. Investigación en Villadepera de Sayago*, Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Calero, M. A. (1993): *Estudio sociolingüístico del habla de Toledo*, Universitat de Lleida, Lleida.

- Camino, I. (arg.) (1998): *Nafarroako hizkerak: Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako agiriak, Iruñea, 1997ko azaroa (24-28)*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2005): “Euskal soziolinguistikaren atarian”, in P. Etxeberria eta H. Knörr (arg.), *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 157-187.
- , (2009): *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*, Elkar, Donostia.
- Chambers, J. K.; Trudgill, P. eta Schilling-Estes, N. (2002): *The handbook of language variation and change*, Blackwell, Oxford.
- Esnaola, I. (1999): *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain: zenbait ezaugarriren deskripzio kuantitatibo eta kualitatiboa*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- Etxabe, K. (2010): *Kode alternantzia lagunarteko gazte hizkeran. Zaldibia eta Ordiziako kasuak*, HIZNET 2009-2010.
- Haddican, W. F. (2007): “Suburbanization and language change in Basque”, *Language in Society*, **36**, 677-706.
- Holmquist, J. (1985): “Social correlates of a linguistic variable: a study in a Spanish village”, *Language in Society*, **14**, 191-203.
- Hualde, J. I. (2000): “Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar”, in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 12-25.
- Labov, W. (1966): *The social stratification of English in New York City*, Center for Applied Linguistics, Washington, DC.
- , (1972): *Sociolinguistic Patterns*, University of Pennsylvania Press, Philadelphia.
- , (2001): *Principles of linguistic change: social factors*, Blackwell, Oxford.
- López Morales, H. (1983): *Estratificación social del español de San Juan de Puerto Rico*, UNAM, Mexiko.
- Moreno Fernández, F. (1994): “Sociolingüística, estadística e informática”, *Lingüística*, **6**, 95-154.
- Moya, J. A.; García, E. J. (1995): *El habla de Granada y sus barrios*, Universidad de Granada, Granada.
- Santazilia, E. (2009): “Luzaideko hizkuntz bariazioa”, *FLV*, **111**, 219-248.
- Tagliamonte, S. A. (2006): *Analysing sociolinguistic variation*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Trudgill, P. (1974): *The social differentiation of English in Norwich*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Zuazo, K. (2005): *Euskara batua: ezina ekinez egina*, Elkar, Donostia.

